

"URTARRILEAN, MENDIBILEN, ALDAPARIK EZ" LEHIAKETAN PARTE HARTZEKO OINARRIAK (500 EURO EROSKETA-TXARTELETAN)

Lehiaketa honen bidez, Mendibil Merkataritza Guneko Jabekideen Erkidegoak antolatutakoa (IFK: H20818944; helbidea: Arizmendi Almirantea kalea 9, 20.302 Irun, Gipuzkoa), parte-hartzaileek parte hartzeko arau hauek ulertzen, onartzen eta men egiten diete, baldintza orokor hauekin:

Sustapen hau Internet bidez egingo da, Mendibil Merkataritza Guneak Instagram sare sozialean duen orrian: <https://www.instagram.com/mendibil.cc>

Sustapen honetan parte hartzea doakoa da. Erosketetako tiket bat edo gehiago (gutxienez 30 eurokoak) aurkeztu behar dira soilik, saria jasotzean.

PARTE HARTZEKO DATAK:

Parte hartzeko epea 2026ko urtarrilaren 15etik 31ra izango da (biak barne). Epea urtarrilaren 31ko 24:00etan amaituko da.

1. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK:

18 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute.

Sustapen honetan parte hartzeak sustapenaren oinarri guztiak onartzea dakar.

Parte-hartzaileak kanpo uztea: Edozein parte-hartzaile sustapenetik kanpo utz daiteke, baldin eta Mendibil Merkataritza Guneko Jabekideen Erkidegoak uste badu arauz kontra edo fede txarrean jokatzan ari dela, edo lehiaketaren funtzionamendua eragozten badu. Ezin izango da profil faltsurik erabili, ezta profilik iruzurrez erabili ere.

2. PARTE HARTZEKO MODUA:

Parte-hartzaileek honako urrats hauek egin beharko dituzte lehiaketan parte hartzeko:

- Mendibil Merkataritza Guneko denda edo zerbitzuren batean egindako erosketetako tiket bat eduki behar da. Tiketak urtarrilaren 7tik 31ra bitartekoa izan behar du, eta gutxienez 30 eurokoa izan (hainbat tiket izan daitezke, guztira kopuru horretara iristen badira).
- Jarraitu Mendibil Merkataritza Gunearen kontua: [@mendibil_cc](#)
- Sakatu "like" botoia lehiaketaren dinamika azaltzen duen argitalpenean (argitaratze-data: 2026ko urtarrilaren 15a).
- Etiketatu pertsona bat argitalpen horretan. Zenbat eta pertsona gehiago etiketatu, orduan eta irabazteko aukera gehiago.

3. SARIA:

- 500 euro. 50 erosketa-txarteletan emango dira, bakoitza 10 euroko baliokoa, Mendibileko denda eta zerbitzuetan soilik erabili ahalko direnak (txarteletan adieraziko da zeinetan).
- Erosketa-txartelak 2026ko apirilaren 30era arte izango dira baliodunak.
- Saria ezin da inolaz ere eskudiruagatik trukatu.
- Sariduna fisikoki aurkeztu beharko da, NANarekin.

4. SARIAK EMATEKO MODUA:

Zozketa bat egingo da parte-hartzaile guztien artean.

Erakundea, Instagrameko mezu baten bitartez (DM), otsailaren 2an jarriko da harremanetan irabazlearekin, bere nortasuna egiaztatzeko eta bermatzeko parte hartzeko irizpideak betetzen dituela.

Harremanetan jartzeko eta datuak egiaztatzeko prozesua amaitu ondoren, irabazleak adieraziko zaion datan jaso beharko du saria, eta 30 euro edo gehiagoko erosketa-tiket bat edo gehiago aurkeztu beharko du. Argazkiak atera eta bideoak grabatu ahal izango dira sari-banaketan, Mendibil Merkataritza Guneko sare sozialetara igotzeko. Ez badira baldintzak betetzen, parte-hartzaileen zerrendako hurrengo pertsonarekin jarriko gara harremanetan, eta horrela jarraituko dugu ondoz ondo, baldintzak betetzen dituen pertsona bat aurkitu arte.

Lehiaketaren oinarrien klausulak:

Eman dizkiguzun datu pertsonalei dagokienez, zera jakinarazten dizugu:

Tratamenduaren arduraduna: Zure datuak Mendibil Merkataritza Guneko jabe-erkidegoak tratatuko ditu (IFK: H-20818944).

Helburuak eta legitimazioa: Zure datuak tratatuko ditugu "URTARRILEAN, MENDIBILEN, ALDAPARIK EZ" sustapeneko 500 euroko (erosketa-txarteletan) zozketan parte hartzeko.

Epea: Zure datuak behar beste denboraz tratatuko dira, datuak biltzeko arrazoi izan ziren helburu zehatzak betetzeko, haien erabileraren garrantzia galdu arte edo, nolana ere, ezereztu arte, titularrak dagozkion eskubideak egikaritu baititzake.

Hartzaileak: Zure datuak ez zaizkie emango hirugarrenei, legezko betebeharririk ez bada.

Eskubideak. Baldin eta datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko, aurka egiteko, mugatzeko eta/edo eramangarritasunerako eskubideak erabili nahi badituzu edo zure datuen tratamenduari buruzko informazio gehiago nahi baduzu, erantsi zure

nortasuna egiaztatzen duen dokumentuaren kopia bat eta idatzi Arizmendi almirantea kalea 9, 20302 Irun (Gipuzkoa) helbidera edo posta elektronikoa honetara: mendibil@centrocomercialmendibil.com